

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko azaroaren 22a, VIII. urtea, 2.311. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Bi eskualdeetako herri guztietan izan da bozkatuena Amaiur koalizioa

Azaroaren 20ko Espainiako Gortetarako hauteskundeetan Amaiurrek 13.090 bozka lortu ditu; EAJk 5.649; PSE-EE/PSNk 2.685 eta UPN/PPk 1.924

Amalur Mendizabal anoetarrak senatari kargua eskuratu du herritarren babesarekin; kasu askotan zuzeneko bozka jaso du Amaiurreko ordezkariak **2-3**



AZABALA

→ **Pasa da Babarrunaren Astea.** Tolosako lekalerik ospetsuenaren astea igaro berri da. Babarrunaren bueltan ekitaldi ugari izan dira azken egunetan, eta horietako bi izan dira nagusi: Babarrun Ekoizleen Lehiaketa, Legorretako Joxe Mujikak irabazi duena, hain zuzen; eta Gure Kaiolak antolatutako Lehiaketa Gastronomikoa, non Ibarako Xepla elkarteko Bixente Artola eta Floren Altuna izan diren sukaldaririk finenak. **4**

Ana Mari Ruiz Cecilia G. de Guilarteren alaba

«Izan dena baino gogoratuagoa izatea merezi zuen amak»

Cecilia G. de Guilarte idazle eta kazetari tolosarrari omenaldia egingo diote gaur **6**



LURRINDEGIA

Erremonte Txapelketako finalerdietan ariko da Zeberio

Elduaindarrak, Ion bikotearekin batera, 40-29 irabazi zien Urtasun eta Etxeberriari, aurrera egiteko txartela lortuz **7**

GONBIDAPENA

Maite Lurrindegia, gure zentroan gozatu ditzazkezun **Natura Bissé** luxuzko kosmetika etxearen produktu eta tratamendu esklusiboen aurkezpena gonbidatu nahi zaitu.

Opari eder bat jaso eta parte hartu hurbiltzen zaretenon artean zozketatuko den Aurpegi Tratamendu baten zozketan. Hurbildu zaitetz.

(Aurkezpena azaldu nahi duenak aurretik dei dezala gomendatzen da)


Azaroak 24, Osteguna, 18:00etan ORIA HOTEL-ean
(Oria, 2 - Tolosa - Tel.: 943 654 688)

Gainera, gonbidapen hau gure lurrindegira ekarri zergo, Natura Bissé-ko produktu eta tratamenduetan %20-ko beherapena lortu dezakezu. Promozioak abenduak 17ra arte iraungo du.

LURRINDEGIA



Bozka eman duten herritarren erdiak Amaiurren alde egin du



Guztira 13.090 bozka jaso ditu koalizioak Tolosaldean eta Leitzaldean; EAJ-PNV izan da bigarren indarra, 5.649 bozka jasota

Asier Imaz

Azaroaren 20an, herenegun, Tolosaldeko eta Leitzaldeko 38.420 herritarrek, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan parte hartzeko aukera izan zuten. Bozka ematera joan ziren bi herritarretatik batek, Amaiurren alde egin zuen. Honi esker, 30 herritan Amaiur izan da garaile.

Abstentzioa %34,99koa izan zen herenegun. 2008ko Espainiako Gorteetako hauteskundeekin alderatuz gero, parte hartzeak %20ko igoera izan zuen; hala eta guztiz ere, 13.442 herritarrek ez bozkatzea erabaki zuten igandean.

Amaiurrek 13.090 herritarren babesa jaso zuen Tolosaldean eta Leitzaldean. Duela lau urteko

↓ ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK

2011 (2008)	Errolda	Amaiur	EAJ	PSE-EE/PSN	PP/UPN	IU-LV/Ezkerra	UPyD	Geroa Bai	Besteak	Abstentzioa %
Abaltzisketa	249 (245)	99	55 (46)	5 (5)	3 (1)	0	0	-	1	32,93 (66,94)
Aduna	347 (293)	170	42 (31)	5 (6)	4 (0)	6	1	-	1	31,70 (75,43)
Albiztur	254 (258)	72	63 (81)	9 (16)	1 (2)	1	0	-	2	39,76 (50,76)
Alegia	1.341 (1.358)	552	198 (177)	58 (81)	52 (42)	11	3	-	7	33,63 (63,40)
Alkza	277 (273)	112	51 (52)	1 (5)	1 (1)	0	0	-	4	36,10 (58,61)
Altzo	300 (298)	146	42 (56)	3 (7)	1 (1)	1	0	-	7	32,33 (66,11)
Amezketeta	757 (775)	351	107 (96)	4 (17)	18 (13)	9	0	-	2	34,08 (71,87)
Anoeta	1.392 (1.401)	520	181 (151)	126 (187)	76 (60)	15	3	-	12	31,82 (63,53)
Areso	234 (242)	84	- (-)	10 (18)	26 (37)	1	0	21	0	38,46 (51,24)
Asteasu	1.101 (1.126)	426	139 (141)	37 (72)	25 (23)	11	5	-	3	40,05 (60,39)
Ballarain	98 (81)	57	7 (8)	1 (2)	0 (0)	0	0	-	1	31,63 (83,95)
Belaurtza	216 (248)	85	25 (22)	5 (9)	3 (4)	1	1	-	2	43,52 (73,39)
Berastegi	832 (805)	326	141 (155)	24 (45)	10 (7)	5	0	-	6	36,66 (56,77)
Berrobi	451 (468)	176	35 (71)	17 (29)	23 (29)	4	1	-	1	42,35 (61,54)
Bidegolan	400 (374)	156	57 (56)	4 (13)	4 (13)	3	0	-	2	40,50 (62,30)
Elduain	179 (192)	73	31 (25)	3 (3)	1 (1)	1	0	-	3	36,31 (76,04)
Gaztelu	136 (145)	69	18 (30)	3 (5)	3 (3)	1	0	-	0	30,88 (65,52)
Hemialde	279 (272)	85	39 (48)	4 (11)	10 (7)	3	0	-	5	45,16 (63,60)
Ibarra	3.354 (3.509)	1.080	399 (443)	343 (574)	174 (142)	67	5	-	31	36,46 (54,29)
Ikaztegieta	368 (359)	149	70 (68)	18 (22)	7 (7)	7	1	-	4	29,89 (64,35)
Irura	1.157 (1.020)	399	153 (169)	82 (110)	64 (33)	14	4	-	7	36,56 (55,29)
Larraul	175 (169)	72	18 (11)	7 (9)	0 (0)	3	0	-	1	41,71 (73,37)
Leaburu	293 (314)	151	48 (51)	0 (4)	6 (5)	0	0	-	3	27,30 (73,57)
Leitza	2.381 (2.397)	1.047	- (-)	75 (185)	236 (249)	9	2	225	6	31,71 (57,95)
Lizartza	476 (505)	282	47 (43)	1 (3)	12 (20)	4	0	-	1	26,47 (82,57)
Orendain	142 (147)	70	30 (28)	0 (0)	2 (0)	0	0	-	0	26,06 (68,71)
Orexa	92 (95)	80	2 (1)	0 (0)	0 (0)	0	0	-	0	9,78 (97,89)
Tolosa	14.488 (14.419)	4.052	2.819 (2.600)	1.259 (2.085)	769 (759)	211	58	-	158	34,44 (47,61)
Villabona	4.447 (4.544)	1.421	564 (559)	383 (666)	258 (257)	80	26	-	34	36,52 (55,90)
Zizurkil	2.204 (2.192)	728	268 (264)	198 (376)	126 (118)	19	9	-	20	36,48 (57,53)
TOLOSALDEA	35.805 (36.133)	11.959	5.649 (5.483)	2.600 (4.363)	1.662 (1.546)	477	117	-	318	35,18 (55,14)
LEITZALDEA	2.615 (2.639)	1.131	-	85 (203)	262 (286)	10	2	246	6	32,31 (57,33)
GIPUZKOA	554.918 (560.223)	129.655	83.445 (76.891)	78.100 (125.659)	51.088 (46.982)	12.508	5.686 (2.556)	-	7.749	32,31 (41,82)
NAFARROA	470.385 (460.495)	49.100	-	72.656 (115.837)	126.101 (131.618)	18.224	6.827 (2.577)	42.411	8.238	28,65 (26,75)
Diputatuak Gipuzkoan	6	3	1 (2)	1 (3)	1 (1)	0	0 (0)	-	0 (0)	32,31 (41,82)
Diputatuak Nafarroan	5	1	-	1 (2)	2 (2)	0 (0)	0 (0)	1	0 (1)	28,65 (26,75)
Gipuzkoa (Senatua)	4	3	1 (1)	0 (3)	0 (0)	0 (0)	0 (0)	-	0 (0)	32,09 (41,18)
Nafarroa (Senatua)	4	0	-	1 (1)	3 (3)	0 (0)	0 (0)	0	0 (0)	29,12 (27,86)

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak →**A20**

hauteskundeetan, ezker abertzaleak parte hartzerik izan ez zenez, erreferentzia maiatzeko hauteskundeetan bila daiteke. Kasu honetan, Amaiur koalizioa osatzen duten Bildu eta Aralarrek 13.543 bozka jaso zituzten.

Eskualdeetako bozkek gehituta, bigarren indarra EAJ-PNV izan da 5.649rekin. Aurreko hauteskundeetan 5.483 lortu zituen.

Hirugarren indarra, 2.685 bozkarekin, PSE-EE/PSN izan da. 2008ko hauteskundeetan 4.566 bozka lortu zituen. PP/UPN izan da laugarrena, 1.924rekin, 2008koan baino 92 bozka gehiago lortuz.

Indar politikoaren erreakzioak

Ezker abertzaleko kidea den Antton Izagirrearen esanetan, udal hauteskundeetan emandako emaitzak konfirmatu ziren igandean, eta balantze «oso positiboa» egiten du: «Mahaigainean jarri dugun proiektua erakargarria dela erakusten du; alderdi abertzaleak elkarrekin lanean ikusteko gogoia zegoen, eta hori saritu du jendeak. Elkarlan horretara batu nahi izan ez duen EAJ berri, zigortu egin dute. Aurrerantz elkarlanerako bide horiek topatu egin beharko dira».

Elkarlan hori bultzatuz, Izagirrek bi erronka nagusi dituztela aipatu du: «Gatazkaren konpon-



100 urte dituen Eskolastika Alerzak Txaraman bozkatu zuen. HITZA

bidea eta Euskal Herriari hitza eta erabakia izatea».

Udal hauteskundeetako erreferentzia aipatzean, Izagirrek argi du Espainiako Gorteetarako ez direla berdinak: «Maiatzean gertuko jendea gertuko arazoez ari zen, eta hauteskunde hauek agian oso urrutikoak ikusten dira; beti egoten da hoztasun bat. Hala eta guztiz ere, beste alderdiekin alderatuz, Amaiurrek jende gehiago mugiaraztea lortu du».

EAJ alderdiko Luke Uribe-Etxeberriak aurkako irakurketa egin du. Asteasuarraren ustez, EAJk emaitza «bikainak» lortu ditu: «Ezker abertzalea kontsolidatu egin da, eta guk gora egin dugu. Nire ustez, alderaketa egokiena 2008ko hauteskundeekin egin beharko litzateke, baina ezker abertzalearen kasuan hori ezinezkoa da, ez baitzioten parte hartzen utzi. Hala eta guztiz ere, Bildu eta Aralarren emaitzak ez

ditu errepikatu Amaiurrek. Agian desgaste bat egon da hor, ezker abertzalea aspaldi ez baitzen boterean egon».

Uribe-Etxeberriaren ustez PSE-EE «hondatu» egin da, eta «PPk ez du Raxoiren olatu hori aprobetxatu».

Legebiltzarkidearen eta Asteasuako zinegotziaren esanetan, EAJ bi helbururekin aurkeztu zen hauteskunde hauetara: «Gorteetarako taldea mantentzea eta

bozketan alderdi nagusia izatea. Geroa Bai koalizioan egin dugun ekarpena kontuan hartzen badugu, bi helburuak bete ditugula esan daiteke».

Tolosaldeko PSE-EEko kidea den Oscar Renedo, bere alderdiaren emaitzei alde ona aurkitzen saiatu da: «2008ko emaitzak ikusiz gero, jaitxi egin gara. Maiatzekoak ikusiz gero, 700 bozka berreskuratu ditugu adibidez Tolosan. Gure oinarria berreskuratu dugu eta lanean jarraitzea besterik ez zaigu gelditzen. Gipuzkoa mailan egia da emaitzak ez direla onak izan: krisiaren eragina izan da. Une honetan, agintean zeuden alderdiei hori tokatu zaie, eta ez hemen bakarrik, Europa osoan ikusten da hori».

Amaiurren inguruan, «olatuarren gainean» aurkitzen dela onartu du Renedok, hala eta guztiz ere, efektu horren inguruan hiru edo lau urte barru hitz egin beharko dela uste du PSE-EEko kideak, «gobernuan dagoen edozein alderdik jasaten duen desgastearen ondoren».

PP/UPNren inguruan, Jose Miguel Goikoetxea Leitzako zinegotziak hitz egin du. Bere ustez, «eskualean ez da ezer aldatu; denak berdin segitzen du». Estatu mailan emaitza ikusgarriak izan dituztela dio, eta orain arte bezala, lanean jarraituko omen dute.



Ibarran, hauteskontziak bozkek jasotzeko zain. A. IMAZ



Amezketan herritar bat bere bozka ematen. AMETS ZABALA

Amalur Mendizabalek senatari postua irabazi du

Gipuzkoako hautagai bozkatuena izan da anoetarra 126.332 bozkek, bigarrenari ia 4.000ko aldea atereaz

A. IMAZ Anoeta

Sepia koloreko bozketan gehiezin hiru X markatu behar ziren. Espainiako Senatutarako hauteskundeetan, hautagaiak bozkatzen ziren, alderdien gainerik. Amalur Mendizabal Amaiur koalizioarekin aurkeztu zen, eta inork baino bozka gehiago lortu zituen herenegun: 126.332. Herri-tarrek aukeratu zuten anoetarra, eta kasu askotan espresuki. Ondorioz, Madrilerako joateko eskubidea irabazi du.

Bigarren postuan, bere koalizioko Alberto Unamunzaga gelditu zen, 122.653 bozkek.

Anoetarra gustura zegoen lortutako emaitzarekin, eta esker hitzak adierazi ditu: «Lanean ibili diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Duela hilabete batzuk,



Amalur Mendizabal, Ibarrako hauteskunde ekitaldian. A. IMAZ

udal hauteskundeetarako jendea elkarrekin egin zen, eta dinamika horrek aurrera jarraitu du. Niri izugarriko poza ematen dit al-

derdi desberdinetako jendea elkarrekin ondoan lanean ikustea, eta esperientzi polit bat izan da hau guztia».

Udazkenaren zaindariak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Udazkenak gure basoetan bere etorrera hotz eta hai-zetsua egiten duenean, Euskal Herriko basoetan zehar bizidun selebrek hasten dira mugimenduan. Sarritan topatu izan dut izaki hauetako bat baino gehiago Langauurreko basoetan zehar. Izaki hauek bi hanka dituzte eta zutik ibiltzen diren arren beraien jarrera behearantz okertua da, lurra zerbaiten bila ibiliko balira bezala. Hau gutxi balitz, bi esku dituzte, batean urritz makila daramate eta bestean, saski bat.

Izaki bitxi hauei bilogook perretxikozale deritzogu eta beraien udazkeneko helburua, saskia perretxikoz bete, hauek gertueneko tabernan erakutsi eta beren elkartean tortila baten barruan jatea da. Baina zer ote dute berezia perretxikozale bako perretxikozaleez gainezka egoteko?

Perretxikozaleen erlijioa diren perretxikozaleak, ez dira animaliak, ezta landareak ere, perretxikozale ondoen fruituak dira eta ondoak bizidunen erreinu aparte bat da. Basoetan ondooa lurpean, zuhaitzen barruan edo hildako animalien barrenean hazten da eta udazken edo udaberrian, sagarrondo baten antzera, bere fruitua ematen du: perretxikoa. Hala-ko ondooa halako perretxikoa, batzuk jangarriak, asko beherako eragileak, eta gutxi batzuk hilgarriak edo behin soilik jan ahal direnak. Perretxikoa honek, barruan ondoaren 'haziak' ditu eta haizearen bidez hegan joaten dira beste ingurune bat kolonizatuz.

Beraz, perretxikoa ondoaren zati 'jangarria' besterik ez da eta ondoaren gorputza ezkutuan

egoten da, leku humeletan beti. Gorputz hauskorra du, hari itxurakoa, baina oso azkar hazten dena. Hazkuntza erradiala du, hau da, puntu zentral batetik kanporantza norabide guztietan hazten da zirkulu baten itxura hartuz. Bere fruituak, perretxikozaleak, garatzeko garaia heltzean, zirkuluaren ertzeko harizpiak elkar borobiltzen eta lotzen dira, eta lurrraren gainetik lotsati agertzen dira perretxikoa baten formarekin, horregatik, perretxikoa bat agertzen denean, inguruan begiratzea komeni da, agian perretxikozalearen azpian ondoaren gorputza dago eta, eta urrutira gabe beste perretxikoa bat garatu du, sagarrondo batek sagar ugari garatzen dituen bezala. Hau perretxikozaleen bibliaren bigarren pasartearen idatzia dago.

Hala ere, perretxikozale badute morbo edo grazia apur bat, aditu handienek ere ez baitakite non eta noiz agertuko diren, ilargi beteak eragina omen du, baita udazkeneako lehen igandeko euririk ere, nor daki! Agian ondoak guri barrezka ari zaizkigu lurpetik.

Gogoratzen naiz superperretxikozale batek nola 40 kilo perretxikoa bildu omen zituen eta beste ultraperretxikozale batek berriz, autotik atera gabe ba omen daki perretxikoa non dauden usainagatik. Zer gertatuko ote litzateke bi superhero hauek perretxikozale bikotean joango balira?

Perretxikozaleen inbasioak hasten direnean, gure herriko autoritateak eta *sheriffak* kezkatu ipintzen omen dira: antxoak 'paro biologikoa' deritzona badu... zergatik ez perretxikozale? Ez ote dira perretxikozale gure basoetatik desagertuko?

Biologo xume honek beste galdera batekin erantzuten du: sagarrondo bati sagarrak urtero kentzen badizkiogu, utziko ote du sagarrak emateari?

Zaindu ditzagun gure basoak, utzi dezagun basoetan egur hila, errespetatu dezagun bertako fauna, erabil ditzagun perretxikozaleak saskiak, eta ondoek beren fruituak ematen jarraituko dute eta guk perretxikozale baten perretxikoen zain jarraituko dugu zartagia eta arrautzak prestatuta, beti ere email honetan: bioaniztasunetik@hotmail.com. On egin!

Mujikaren babarrunak Artolak eta Altunak prestatu dituzte hobekien

Ibarrako Xepla elkarteko bi kide izan dira Lehiaketa Gastronomikoko irabazleak

Rebeka Calvo Tolosa

Ekitaldiz betetako asteburua izan dute Tolosan Babarrunaren Astearen barruan. Larunbatean Babarrun Ekoizleen Lehiaketa izan zen, eta herenegun Lehiaketa Gastronomikoaren txandak izan zen. Babarrun asteari bukara emateko Zerkausian babarrun jatea ere izan zen igandean, hau ere, Lehiaketa Gastronomikoa bezala, Gure Kaiola elkartearen eskutik.

Lehiaketa Gastronomikoaren irabazleak Ibarrako Xepla elkarteko bi kide izan ziren: Bixente Artola eta Floren Altuna. Bigarren saria berriz, Donostiako Gastetxerregiko Juan Mari Aramendi eta Ramon Lizarazu izan ziren, eta hirugarrenak, Donostiako Alejandro Insua eta Maria Vitoria Lagos. Hiru sari hauek prestaketari erpreparatuta banatu zituzten, baina itxurari erpreparatuta ere izan zen saririk, eta Beasaingo Arrano elkarteko Jose Manuel Soroizek eta Josu Jasok lortu zuten. Lehiaketako epai mahaia gainera, ez zen edonolako izan. Besteak beste, Martin Berasategi, Hilario Arbelaitz eta David de Jorge izan ziren bertan. Hiru sukaldariak parte hartzaileen maila goraiatu zuten, eta baita babarrunen kalitatea ere.

Larunbateko ekitaldiei dagokionez, eguna babarrunak prestatzen hasi zuten. Trianguloan bildu ziren guztiak, eta ondoren Babarrun Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa egin zuten. Txapelketa Legorretako Joxe Mujikak irabazi zuen. Ez da goieritarrak irabazten duen lehen aldia; iaz ere lehen saria eskuratu zuen, eta



Larunbateko Babarrun Ekoizleen irabazleak eta epai mahaiko kideak, eta hereneguneko Lehiaketa Gastronomikoko irudi bat. R. CALVO-A. ZABALA

baita 1999. urtean ere. 2002. urtean hirugarren izan zen, eta 2005ean eta 2008an, bigarren. Irabazleak esandakoaren arabera, hala ere, ez du inongo sekreturik: «Ondo zaintzea, besterik ez, ez dago sekreturik. Mimatu eta lan egin, horixe. Aurtengo uzta hobea izan dela esan behar dut».

Bigarren eta hirugarren sariak, aldiz, eskualdean garatu ziren; bigarren Anoetako Juan Felix Zarauzek egin zuen, eta hirugarren saria Albizurrer joan zen, Juan Ugartemendiaren eskutara. Era berean, sari banaketa eta gero babarrun lakari bat, 3 kilo, alegia, jarri zuten enkantean. Dirua Afrika Elkartasuna elkartearantz izango da iaz bezala, Malin Joxe Arregi frantziskotarrak duen proiektu bat laguntzeko. Aurtengoan 700 euro ordaindu dira lakariagatik, eta Tolosan ireki berri den Lurlan dendak erosi zuen.

Lehiaketa eta enkanteaz gain, hala ere, ekitaldi gehiago ere izan ziren goizean zehar. 12:00ak aldera Babarrunaren Kofradiako kideek, 800 bat babarrun anoa banatu zituzten Trianguloan, eta goiz osoan zehar azoka berezia izan zen leku berean, artisauen produktuak ikusi eta erosi ahal izan ziren San Frantziskon, liburuak ere jarri zituzten salgai aipatu pasealekuan...

Urteroko ekitaldi berezietariko bat ere izan zen larunbatean: Txinparta elkarateak antolatzen duen Txapela Nork Hobeto Jantzi Lehiaketa. Guztira 15 gizonen eta 14 emakumeen hartu zuten parte. Gizonen artean Manuel Tolosak lortu zituen puntu gehien, 33; Juan Zubeldiak bigarren egin zuen 32 punturekin; eta hirugarrena Ignacio Iribarren izan zen 31 puntu eskuratuta. Emakumeen artean hau izan zen sailkapena: Maritxu Uribe izan zen lehena 32,5 punturekin; Izaskun Sagredo bigarren 30 puntu bilduta; eta Marta Garcia hirugarren 29,5 puntu irabazita. Parte hartzaile zaharrena 93 urte dituen Florentino Gastesi izan zen, eta gazteena 5 urte dituen Elene Ariznabarrera.

Londres Hotela

Tolosa, babarrunaren inguruko ekitaldiak bukatu badira ere, Donostian izango da zer dastatua oraindik. Tolosako Babarrun Kofradiak eta Donostiako Londres Hotela antolatuta, Tolosako Babarrunaren Eguna antolatu dute ostegunerako, hilak 24. Egun horretan hortaz honako menua izango da dastatzeko: mondejo pintxoak, Tolosako babarrunak, Beasaingo odolkiak, Idiazabalgo gazta, xaxuak, teilak eta zigarratxoak.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Aduna ◊**PAILAZOAK KULTUR ASTEA AGURTZEKO**

Kantu jirarekin hasi zuten larunbata, Adunan. Ondoren, sagardogintzari buruzko hitzaldia izan zuten. Bazkaria Aburuzan egin zuten, eta herria girotzen jarraitu zuten Kantu jira eginaz. Igandean, Korri eta Xalto pailazoak izan ziren txikienen gozagari. Atzetik, taloak eta gaztainak izan zituzten kultur asteari amaiera emateko. A. ZABALA

Amezketeta ◊**MAHAIAREN BUELTAN ELKARTU DIRA**

Igandean Amezketan eta larunbatean Abaltzisketan, hirugarren adinekoek beraien eguna izan zuten. Abaltzisketan, Larraitzeko ermitako meza ondoren, bazkaria izan zuten. Amezketan, berriz, urteroko ohiturari jarraituz meza nagusia eta bazkaria izan zituzten Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsoariak. AMETS ZABALA

Amasa ◊**AZOKA BEREZIA ETA DUATLOIA, BUKATZEKO**

Bukatu dira Amasako jaiak. I. Azoka Berezia egin zuten larunbatean, eta igandean Euskal Herriko I. Mendi Duatloi zirkuitua izan zuten. Azokan 30 bat postu jarri zituzten, eta askotariko produktuak ikusi ahal izan ziren. Igandeko mendi duatloian, berriz, Jon Erguin izan zen lehena 22 km inguruko lana bukatzen. REBEKA CALVO

Alegia ◊**XEXILI EGUNA AURRERATU DUTE**

Loatzo musika eskolak, gaurko Xexili eguna larunbatean ospatu zuten, Alegian. Goizean goiz herria musikarekin dantzan jarri zuten eskualdeko musikariek. Kalejirek eman zioten hasiera egunari, eta ondoren, instrumentu ezberdinen txanda izan zen goiz osoan zehar emanaldiak eskainiz. Eguna bazkari ederrarekin amaitu zuten. R.CALVO

Anoeta ◊**HERRI KROSA ETA BERTSO BAZKARIA**

Larunbatean eman zioten bukaera anoetarrek kultur eta kirol asteari. Herri krosa izan zuten, eta bertan 20 bikotek parte hartu zuten. 3 kilometro eta 500 metroko ibilbidea egiten lehenak Leire Gonzalez eta Ibai Iztueta izan ziren. Ondoren, 40 lagunek Agirre eta Zubeldiarekin bertso bazkaria izan zuten Kuku elkartearen. HITZA

**harpidedun izateak badu saria****zozketa****1 Sausta Jatetxea**

Bi lagunentzako
bazkaria edo afaria

Belate pasealekua, 7-8 behea
Tolosa • Tel.: 943-65 54 53
www.sausta.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

**2 Mikel Izagirre**

Ile mozketa bat

Gorosabel, 27 behea
Tolosa
Tel.: 943-67 52 49
http://www.lasonet.com/mikel/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

**3 G puntua**

Gipuzkoako Bertsolari
Txapelketako finalderirako
bi sarrera pare

Azaroak 27, Igandea • 17:30ean
Tolosako Usabal Kiroldegian

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

**4 Donostiako Aquariuma**

Hiru lagunentzako
bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

**5 Lagu Aro GBC**

Sarrera pare

Azaroak 27 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55



LAGUN ARO GBC
Lucentum Alicante
saskibalo partida

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info

Ana Mary Ruiz ◊ Cecilia G. de Guilarteren alaba

Cecilia G. de Guilarteren alaba da, eta gaur Tolosako udaletxeko batzar aretoan idazleari egingo dioten omenaldian parte hartuko du hitzaldi bat eskainiz.

«Amak sekula ez zuen hemendik alde egin nahi izan»

Itzea Urkizu

Hamalau urterekin etorri zen Ana Mary Ruiz (Mexiko Hiria, 1947) Tolosara, eta hemen bizi da harrezkero. Bere ama zenari buruz hitz egingo du gaur, Cecilia G. de Guilartere idazle eta kazetari tolosarrari egingo dioten omenaldian. Udaletxeko batzar aretoan ospatuko da jardunaldia, eta bere alaba Ana Mary Ruizez gain, literaturan nahiz kazetaritzan adituak diren hainbat lagunek hitz egingo dute erbestean urte askoz bizi izan zen idazle tolosarrak.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN aritu da erbesteari eta bere amaren lanari buruz.

Zertaz ariko zara zure hitzaldian?

Lehenik eta behin, argitaratu gabe dituen eleberrri batzuk aipatuko ditut; izenburua behinik behin. Berak txikitatik idazle izan nahi zuen, eta hamaika urte zituelaartzelona egunkari batean artikulu batzuk argitaratu zitzioten. Kanariar Uharteretan ere artikulu oso anarkista batzuk argitaratu zitzioten, Italiako klaseen arteko borrokaz. 18 edo 20 urterekin Madrilera joan zen lanera, eta hori bere garaian ezzen ohikoena. Dena den, Madrilera joan aurretik lau eleberrri labor argitaratu zituen. Gainerako hizlariek ez dituzte lau hauek ai-

patuko, eta nik gogora ekarri nahi izan ditut. Lau eleberrri hauek Pio Barojari eskaini zion, gainera. Mexikon ere argitaratu zuen eleberrri bat, eta hona itzuli zenean beste bi. Beraz, nik kazetari lanaz gain, eleberrigilea ere izan zela gogora ekarri nahi dut.

Amaren trilogia naratiboa ere izan-go duzu hizpide.

Trilogiari dagokionez, bi liburu argitaratuak ditu, baina hirugarrena falta da; seguraski datorren urtean argitaratuko dugu. Garai hartan lan gutxiago izan zuen egunkarian eta irradian, eta beraz, erbesteari buruzko trilogia hau idatzi zuen. Liburu hauetarik batekin 1968an Planeta sariko finalista izan zen, eta hurrengo urtean Murtziako sariketa bat irabazi zuen lan berarekin. 1969an, gainera, Franco bizi zela, oihartzun handia izan zuen, nire amak behin baino gehiagotan esan baitzuen errepublikazalea zela.

Nolatan antolatutuzue jardunaldi hauek?

Arantzazu Ametzagak, Tolosan zerbait antolatzeko proposatu zidan, eta Manuel Aznar Solerrek gero bultzadatxo eman zidan omenaldia prestatzeko. Egia esan, kosta egin zait. Jardunaldira datozen guztiak oso lagunak ditut, eta guztiak hitz egin edo



L. URKIZU

idatzi dute noizbait nire amari buruz, erbesteari buruz egiten ditugun mintegietan, eta abar. Zuk idazten duzunean eta liburua argitaratzen dituzunean, jendea zurekin gogoratzen da. Amak erre-

«Izan dena baino gogoratuagoa izatea merezi zuen amak; oso idazle ona zen»

«Erbestea tristuraz gogoratzen dut, nire gurasoek hala bizi izan zutelako»

tiroa hartu zuenean, ez zion idazteari utzi, baina argitaratzeko interesa galdu zuen. Bera hil ondoren, normala da idazle berriek protagonismo handiagoa izatea, eta horrek ez dit inongo tristurarik sortzen. Bere garaia izan zuen. Nire ama Tolosatik irten zenez geroztik, ordea, nahigabez bizi izan zen, ez baitzuen bere herritik atera nahi. Bilbon edo Madrilen ere erbestean bezala sentitzen zen, eta zer esanik ez Frantzian

edo Mexikon; idazle bezala bizi izan zuen malenkonia hori.

Nola oroitzen duzu zure ama?

Asko gogoratzen naiz berarekin, eta egun hauetan are gehiago, omenaldiaren kontuarekin. Tristura pixka bat etortzen zait, gainera. Oso harreman estua genuen, eta leku guztietara laguntzen nion. Tolosara, adibidez, bera baino bi urte lehenago etorri nintzen aiton-amonen etxera. Izan ere, berak baimena behar izan zuen, erbestera zela, eta 1936ko gerrako berriemailea izan zelako. Maitasun handiz oroitzen dut, eta miresmenez ere bai. Izan dena baino gogoratuagoa izatea merezi zuela uste dut, oso idazle ona zelako, egia esan; niri oso ona iruditzen zait.

Eta zuk nola bizi izan zenuen Mexikon jaiotzea guraso erbesteratuekin, eta gero Tolosara etortzea?

Ni Mexiko Hirian jaio nintzen, baina gero Sonorara joan ginen bizitzera. AEBetako mugaren ondoan dago, Mexiko Hiritik 2.500 kilometro. Rantxoetan bizi izan ginen beti, eta euskal etxeekin eta ez nuen beste erbestera

batzuek adina harreman izan. Erbestea tristuraz bizi izan dut, nire gurasoen egoera ikusita; esan bezala, nire amak izan zuen nahigaberik handiena, ez baitzuen sekula hemendik alde egin nahi izan. Tolosara etorri nintzenean, berriaz, hamalau urte besterik ez nintuen, eta ez nintzen guztiz konturatu bizitza osorako hona nentoren. Han, Mexikon, ez genuen sendirik; lagunak ziren gure sendeak, eta gure osaba ez zen bati *osaba* deitzen genion, eta gure aitona ez zen bati *aitona*. Horrenbestez, han geundela beti somatu izan genuen familiaren hutsune hori. Beraz, Tolosara etorri eta nire aiton-amonak, osaba-izebak edo lehengusuak ezagutzea oso zirrarragarria suertatzen zitaidan. Etorri nintzen eta pozik nago.

Zerk bultzatu zuen zure ama Tolosara itzultzea?

Hasteko, herrimina zuen. Horrez gain, bere gurasoak artean bizi ziren, eta berriro elkartu nahi zuten eurekin. Nire aitaren gurasoak, adibidez, hil ziren, eta hark ez zuen halako herriminik. Nire ama 30 urtez egon zen erbestean, eta hona itzultzeko gogoari, 1959an izan genuen istripu larri bat batu zitzaion; lagun bat hil zen, eta beste hamabi zauritu ziren. Nire ama oso larri zauritu zen, eta hilzorian egon zen. Honen gurasoak gehiago ez ikusteko beldur hori areagotu ziola uste dut, heriotza gertu ikusi baitzuen. Orduan, ni etorri nintzen lehenengo eta gero bera nire ahizpetako batekin etorri zen. Aitak lasaiago hartu zuen dena, eta beranduago etorri zen, urte askoren ondoren.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua dago salgai: eguzkitua da eta lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trasteleku ditu. Interesa dutenek, dei dezatela

678 267657 telefono zenbakira.

■ **Garajea.** Garajea salgai Villabonan: lurrazpiko garaje itxia, 14 m2 eta oso egoera onean dago. Prezio ezin hobea du, 15.000 euro. Interesatuak, deitu 649 424932 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zeberio II.a Binakako Erremonte Txapelketako finalerdietarako sailkatu da

Urtasun-Etxeberriaren aurka 40-29 irabazi zuten; finalera iristeko, finalerdietako bi partida irabazi beharko ditu

Iñigo Terradillos Elduain

Eskualdeko bi ordezkari ditu Binakako Erremonte Txapelketak, Aizpurua II.a eta Zeberio II.a, eta biek egingo dute aurrera txapelketan, azken garaipenaren ostean, biek jokatuko baitituzte finalerdietako partidak.

Larunbatean jokatu zuen partida Zeberio eta Ionek osaturiko bikoteak Urtasun eta Etxeberriaren aurka, eta 40-29ko emaitzarekin, nagusitasunez irabazi zuten. Elduaindarra izan zen partidako jokalarai azpimarragarriena, baina Ionon lana ere nabarmentzekoa izan zen, sendotasuna erakutsi baitzuen.



Patxi Zeberio elduaindarra, iragan larunbateko partidaren. MAIALEN ANDRES

Urtasun eta Etxeberria saiatu ziren eta zertxobait gerturatu arren, ia partida osoan nagusi izan ziren Zeberio eta Ion. Ziurtasun handiagoz jokatu zuten. Zeberio 22 tanto egin zituen, eta soilik bi akats. Ionek, berriz, zortzi tanto egin zituen, bi akats eta bi tanto sakez.

Finalaren bila

Ezkurra eta Aizpurua bikotea Zeberio eta Ionon aurkako partida irabazita sailkatu ziren finalerdietarako pasa den astean. Orain bi bikoteek dute finalerako txartela lortzeko aukera. Euren arerioen aurkako hiru partidetatik bi irabazi beharko dituzte.

Jose txo Urrutia txapelkunorde, Ingude Txapelketan

Jon Rekondo leitzarra hirugarren sailkatu da Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketan

bigarren postua erdietsi du aurretan.

Lazaro Bujan leitzarra ere irabazteko zen Ingude-jasotze Txapelketan, baina azkenean ezin izan zuen esku hartu.

Rekondo hirugarren

Doneztebeko urteko FERIA Nagusian Maila Nagusiko Nafarroako Aizkora Txapelketa ere jokatu zuten. Kasu honetan, Jon Rekondo leitzarra aritu zen, baina honek ere ezin izan zuen txapela lortu.

Hamar pago enbor ebaki behar zituen aizkolari bakoitzak, lau kanardiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko. Arantzako Donato Lartretxea izan zen garailea, eta bere atzetik, lehia estu baten ondoren, Juan Jose Lopez lezaundarra sailkatu zen. Hirugarren postuan geratu zen Rekondo, 3 minutu eta 43 segundora.

◉ leitzaldea@hitza.info

I. Terradillos Leizta

Bigarren urtez Euskadiko Ingude-jasotze Txapelketa jokatu zuten iragan ostiralean Donezteben. Bertan, Jose txo Urrutia leitzarra lehiatu zen, baina bigarren postuarekin konformatu beharra izan zuen, Iturengo Joakin Aiorkak jantzi baitzuen txapela.

Aioroak minutu eta erdian 18 kiloko ingudea 91 aldiz jaso zuen. Urrutiak, berriz, 6 jasoaldi gutxiago egin zituen, 85, hain zuzen ere, eta ondorioz, bigarren sailkatu zen. Beraz, bai Euskadiko Txapelketan bai eta Nafarroakoan ere

Irudia ◉ Berrobi



HASI DA FRONTENIS LEHIA

Pasa den asteburuan hasi ziren Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako partidekin. Gizonezkoetan 43 bikote eta banakako 32 lagun ariko dira. Emakumezkoek, berriz, bi bikote baino ez daudenez, abenduaren 7an jokatuko dute finala. Asteburu honetan partida gehiago izango dira, eta finalak hurrengoan jokatuko dituzte. HITZA

Bigarren porrota jarraian jaso du Laskorain areto futbol taldeak

Kirol Sport taldearen aurka 4-1 galdu zuten iragan larunbatean; hurrengo Concepto Egileren aurkakoa dute

Gorka Amatrian Tolosa

Nafarroako Orkoien herriko Kirol Sport taldearen aurka jokatu zuten iragan larunbatean Laskorain areto futbol taldeak, eta kontrako emaitzarekin itzuli ziren

horitxoak etxera, 4-1ekoarekin, hain zuzen ere.

Sailkapeneko goikaldeko postuetan kokaturik dagoen Kirol Sport taldeak nagusitasunez menperatu zuen Tolosako taldea. 1-0 aurreratu zuen etxeko taldea lehenengo zatian. Bigarrenean, jokuak ez zuen aldaketa handiegirik erakutsi, eta aldea handituz joan zen pixkana. Hala, markagailuak 3-0ekoa adierazten zuenean, eta partidaren amaierarako 4 minutu baino falta ez zirenean, atezain jokalararen taktika jarri

zuen martxan Laskorainek. Honek berehalako eragina izan zuen, 3-1ekoa egin ahal izan baitzuten. Tolosarrek aukera gehiago izan zituzten, baina ez zen bat bera ere golean amaitu. Aldiz, etxekoek laugarrena egitea lortu zuten. Azkenean, 4-1ekoarekin bukatu zen partida. Erreskadan jasotzen duen bigarren porrota da, baina, oraindik ere leku erosoan mantentzen da sailkapenean.

Asteburu honetan Concepto Egileren aurkako derbia jokatuko dute horitxoek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



13°
11°

GOIZA LAINTUTA
ARRATSALDEA LAINTUTA
BEROENA 13°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak antolatutako Mendi Astearen barruan, gaur, eskolentzako emanaldia 15:00etan: *Chamoix-Saas Fee eskiz* Egoitz Bengoetxearen eskutik; eta 20:00etan Gurea zine aretoan, Migel Mari Elosegik *Yellowstone parke naturala* hitzaldia eskainiko du.
- **Larraul.** Kultur astearen barruan gaur, 19:30ean, *Gari lanak Errezilen* hitzaldia eta dokumental emanaldia Atala kultur taldearen eskutik, kultur etxean.
- **Tolosa.** Tolosako Udalak erbestean egondako Cecilia G. de Guilarte idazle eta kazetari tolosarra omenduko du gaur: 10:00etan udaletxeko batzar aretoan aurkezpen ekitaldia; 10:30ean inaugurazio hitzaldia: *El feminismo en Cecilia G. de Guilarte y Juana Inés de la Cruz*, 11:45ean beste hiru hitzaldi izango dira: *Contra el dragón, obra teatral de Cecilia G. de Guilarte*, *La trilogía narrativa de Cecilia G. de Guilarte*, eta *Koiki-le*; 16:30ean beste bi hitzaldi izango dira: *Literatura en el exilio y literatura del exilio de Cecilia G. de Guilarte*, eta *Cecilia G. de Guilarte, reportera de la CNT*; 17:30ean mahai ingurua izango da; eta azken hitzaldia 19:30ean izango da: *Cecilia G. de Guilarte y la escritura de la Historia*.
- **Tolosa.** Xexili eguna dela eta, Tolosako musika bandak kalejira egingo du Alde Zaharrean 20:00etatik aurrera.
- **Ibarra.** 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako masaje ikastaroa hasiko da gaur. Bost asteko iraupena izango du. Informazio gehiago nahi duenak kultur etxera jo behar du: 943 67 12 99.

Irudia Elduain



Agurrak



Zorionak Ekaitz!

7 urte!! Muxu potoloak Mitxelena familiaren partez!



Urte askoan politte!

Ioar Olano Sanchez (5 urte). A ze handia eta jakintsua zaren, laster Athletic zalea eta guzti! Izebaren muxutxo goxoenak beti zuretzat.

**EKITALDIZ BETETAKO
ELKARTASUN EGUNA**

Elduainen Elkartasun Eguna ospatu zuten pasa den larunbatean, herriko preso den Ana Belen Eguesek espetxean 10 urte egiten dituelako. Ekitaldi ugari izan zituzten, tartean herri kirolen saioa eta gazteen arteko pilota partidak. Ekitaldian Eguesen anaiak presoaren eskutitza irakurri zuen eta gero, lore eskaintza egin zuten eta agurra dantzatu zioten senitartekoei. «Egusez gain, herriko beste lagun baten mutil lagunak ere 10 urte betetzen ditu aruten, eta eguna bientzako eskainia izatea nahi izan genuen», argitu dute antolatzailak. Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkiete parte hartu zuten eta lagundu zuten guztiei. HITZA

